



### Baja eta lan utzialdiak Musika Eskolan

BAJAK irakasgai zehatz baten ikasketa borondatez utzi nahi duzula adierazten du. Honek zera esan nahi du: berriro ere Musika Eskolan hasi nahi izanez gero, ez duzula inolako lehentasunik izango onartua izateko eskaera egiteko unean.

**ESZEDENTZIAK**, berriz, ikasturte osoan edo beronen zati batean eskoletara etortzeko ezintasuna adierazten du, gaixotasuna, ikasketak edo lan- edo familia-egoera bereziren batengatik. Eszedentzia eskatzeak ez dakar berehalako onarpena. Emateko, baiezko balorazioa izan behar du Musika Eskolako Administrazioaren partetik; ez da bi ikasturte jarraitu baino gehiagorako emango eta urtero eskatu behar da.

Eszedentziak ez dakar tokia gordetzea, baina bai ikaslea Musika Eskolan matrikulatuta zegoeneko irakasgaietan onartua izateko lehentasuna eskaera berrien aurrean.